

EAJ/PNV nagusi Elgoibarren eta EAEn

Partehartzea azpimarratu behar den hauteskundeotan, PP-k (+491), EH-ek (+363), EAJ/PNV (+181) eta PSEk (+91) gora egin dute. EA mantendu eta IU-EB jaitsi egin

Elgoibarko emaitzak ikusita, abstentzio baxua (%24, 1994ko hauteskundeetan baino 10 puntu gutxiago) eta PPren igoera nabarmendu dira. Izan ere, 1994ko hauteskunde autonomikoetan Alderdi Popularrak Elgoibarren 530 boto izan bazituen, aurten 1.021 eskuratu ditu, bikoiztu egin delarik. Bestalde, EAJ/PNV da Elgoi-

barren indar nagusia. Hauek ere, gora egin dute; 200 boto inguru gehiago lortu dituzte. Boto kopurua handitu duen beste alderdi bat Euskal Herritarrok da, 94an baino 363 boto gehiagorekin. PSE alderdia ere igo da (90 gehiago). EAK bere horretan mantentzea lortu du eta IU-EBk, berriz, behera egin du (188 boto gutxiago).



Elgoibarko Hauteskunde datuak 1998

Errolda: 9.327
Emandako botuak: 7.087
Baleko botuak: 6.992
Zuriak: 67
Baliogabeak: 28
Abstentzioa: % 24,2

Elgoibarko Hauteskunde datuak 1994

Errolda: 9.364
Emandako botuak: 6.152
Baleko botuak: 6.131
Zuriak: 88
Baliogabeak: 21
Abstentzioa: % 34,3

Legebiltzarra	EAJ/PNV		EH		PP		PSE		EA		IU	
	94	98	94	98	94	98	94	98	94	96	94	96
PLAZA TXIKIA	852	923	466	605	203	655	271	307	325	310	144	80
JUBILATUAK	241	235	87	91	32	57	51	44	78	66	21	8
P. MUGURUZA	346	327	200	223	125	242	180	203	84	90	81	31
SAN ROKE	477	582	170	294	87	178	122	133	210	216	54	42
URASANDI	216	214	150	198	69	163	172	205	54	75	78	41
SANTA KLARA	132	167	32	50	4	5	5	2	36	28	0	2
ALTZOLA	64	61	56	63	10	11	15	13	6	7	16	2
GUZTIRA	2.328	2.509	1.161	1.524	530	1.021	816	907	793	792	394	206



ELGOIBAR
1998ko urriaren 26a
HAUTESKUNDE
AUTONOMIKOAK
1998

Mila esker zuen
konfidantza eman
diguzuen elgoibartar
guztioi.



EAJ
PNV

Mendaro



Errolda: 1.155 Zuriak: 9 Abstentzia: % 23,8
Emandako botoak: 881 Baliogabeak: 2

Urriak 25	EAJ PNV 94 98	EH 94 98	EA 94 98	PP 94 98	PSE 94 98	IU 94 98	Bestelakoak 94 98
BOTOAK	332 402	175 198	103 103	27 71	70 67	21 27	1 2

Mendaron ere EAJ/PNVk irabazi du

Mendaron EAJ/PNV izan da alderdi nagusia, 1994ko datuekin konparatuz, 70 boto gehiago eskuratu dituelarik. Alderdi Popularrak izan du igoyerarik handiena, 94an baino 44 boto gehiago eskuratuz. EH-ek ere gora egin du (+23 boto) eta IU-EBk ere bai (+6). Gainontzeko alderdiak egoera beretsuan mantendu dira.

Hauteskunde hauetan abstentzioaren jaitziera azpimarragarria izan da eta Mendaroko datuek ere hala erakusten dute. Izan ere, 1994an abstentzioa %36koa izan bazen, aurtentzen %23,8koa izan da.



Elgoibarko ordezkarien Balorazioak



“94ko hauteskunderen konparatuz, 200 boto inguru gehiago jaso ditugu. Gure helburua, Gipuzkoan geneuzkan 6 legebiltzarkideak mantentzea zen eta lortu dugu. Elgoibartarron aportazioa hor dago. Gipuzkoan, beraz, bigarren indarra gara. Elgoibarren, berriz, indar nagusia gara diferentziarekin. Mahai gehienetan lehenengo geratu gara 3 kenduta: San Pedroko etxeetan, Urasandin eta Altzolan.

Abstentzioa asko jaitsi da, %34tik %24ra hain zuzen. Boto horietako zenbait guretzat izan dira. Botoaren eboluzioa bide horretatik doa, kopurua mantendu edo zerbait igoztearen bidetik. Balorazioa positiboa da orokorrean”.



“Lizarrako Deklarazioa indartuta eta babestuta atera da. 4.851 elgoibartarrek Lizarrako Akordioaren alde eman dute botoa, %72k hain zuzen. PP eta PSEri, berriz, 1.875 lagunek eman diete botoa, %20k. Lizarrako Deklarazioa sinatu duten alderdi abertzaleek gora egin dute edo mantendu egin dira. EH-en emaitzak oso onak dira, 94an baino 363 boto gehiago eskuratu ditugu eta 96an baino 479 gehiago. Beraz, herriak gure aldeko apostu politikoa babestu du argi eta garbi. Boto espainolaren (PP-PSE) eboluzioa negatiboa da. 94an 1.346 boto izan zituzten. 96an 2.073 boto eta aurtentzen 1.874. Ezker abertzalea zigortu eta Lizarrako Akordioa arbuizatu dituen PPren politikak botoak galdu ditu.



“Azken hilabeteetan jarraitutako estrategiak ez dio batere onik egin IU-EBri. Lizarrako Akordioa sinatu zutenen artean EH izan da igo den bakarra eta IU-EBko zenbait boto EHra joan dira. PPK Elgoibarren bikoiztu egin ditu botoak eta Autonomi Elkartean ere gora egin du. Garbi dago urteotako lanak eta sakrifizioak balio izan duela eta Blancoren heriotzak, Ermuko Izpituak etab.ek eraldaketa ekarri dutela. Hau dena PPren onerako izan da, ETaren treguak EH-en onerako eragin duen bezala.

Guk garbi laga nahi dugu EAJk gurekin zerbait nahi badu, lehenik eta behin Konstituzioa eta Gernikako Estatutua onartu beharko dituela. Eta gero hitz egiten hasiko gara”.




“91 boto irabazi ditugu Elgoibarren 94ko hauteskunderen konparatuz eta 95eko munizipalengan baino 251 boto gehiago. Ez da erraza boto kopurua handitzea baina 91 boto berri jaso ditugu. Bestetik, 95eko munizipalengako datuak eskuan hartuta, IU-EBk 100 boto galdu ditu eta EAK 400. Igoera garrantzitsua izan dute, bestalde, Euskal Herriarrak-ek eta PP alderdiak. EH-ren igorak ez nau sorpresaz hartu, ETaren su-etenaren ostean euren alde zuten dena. Baina PPren igorak benetan harritu nau. EAEn ere izugarri igo dira.

Gobernuaren osaketari dagokionean, Jeltzaleak eta sozialistak ondo konpondu gara orain arte eta nire nahia berriz gobernuan elkarrekin egotea litzateke”.



Emaitzak ikusita, PP eta EH izan dira gora egin dutenak. ETak alderdi biei egin die mesedea. PPri zinegotzien kontrako atentatuekin eta EH-i tregua aldarrikatzean. Abstentzioa jaitsi egin da eta boto berriak oso polarizatuak egon dira, batez ere PP eta EH-entzat izanik. Euskal gizartearen abertzale eta ez abertzaleen kopuruak nahiko orekatuak daude: alderdi abertzaleok 41 eserleku eskuratu ditugu eta ez abertzaleek 34. Orain ikusi egin beharko da nola osatzen den Gobernu. Uste dugu EA Gobernuan izango dela baina hirugarren alderdia nor izango den jakiteko dago. Kanpainan esandakoen arabera, PPK eta PSEk ez lukete Gobernuan sartzerik izango baina gero gauzak asko aldatzen dira.



“Elgoibarko emaitzak ez dira batere onak izan. 188 boto inguru galdu ditugu aurreko hauteskunde autonomikoen aldean. EAEn ere behera egin dugu. Ez nuen uste horren emaitza kaxkarrak izango genituenik. Argi dago PPK eta PSOEk egin duten kanpaina beldurrean eta nazionalismo espainiarrean oinarrituta egon dela eta abertzalea ez den jende askok euren eman die botoa. IU-EB erdian geratu da, baztertuta. Bestalde, poztu egin naiz Euskal Herriarrak-ek izan duen gorakadarekin, nahiz eta beste muturrean PPK sekulako igoera izan duen. PP asko indartu da eta ondorioz ate asko itxi daitezke. Jarrera intransijenteekin jarraitzeko argudio gehiago dituzte orain”.



Guztiontzako herri aurrerakoia agindu genizuen eta horretan jardungo dugu datozen lau urteotan. Mila esker botoa eman diguzuen guztioi.